



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

50 URTE
AÑOS
somos
KIMIKA
gara

PRENTSA-OHARRA

Kimika bertso erritmoan Donostian

EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak eta EHUko Kimika Fakultateak bertsolaritza eta zientzia dibulgazioa uztartzen dituen "Jakinduriek mundue erreko dau" bertsozientzia ikuskizuna antolatu dute, fakultatearen 50. urteurrenaren harira

Ekitaldia datorren asteazkenean, abenduaren 3an, izango da, Euskararen Nazioarteko Egunean, Donostiako Carlos Santamaria zentroan

Amets Arzallusek eta Oihana Aranak ahotsa eta errima jarriko diete Ainara Sangronizek, Lide Aranak eta Josu Lopez-Gazpioek planteatutako gai zientifikoei, Kike Amonarriz soziolinguista eta umoristak aurkeztutako ekitaldian

Donostian, 2025eko azaroaren 26an. [EHUko Kultura Zientifikoko Katedra](#)k eta [EHUko Kimika Fakultateak](#) "Jakinduriek mundue erreko dau" bertsozientzia ikuskizunaren saio bat antolatu dute, fakultatearen 50. urteurrena dela eta, bertso erritmoan ezagutza kimikoa zabaltzeko. Hitzordua datorren asteazkenean izango da, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean. Saioa 11:00etan hasiko da Donostiako Carlos Santamaria zentroan.

Kike Amonarriz soziolinguista eta umoristak aurkeztuko du ikuskizuna, eta bertan **Amets Arzallus** eta **Oihana Arana** bertsolariek inprobisatuko dute **Ainara Sangronizek**, **Lide Aranak** eta **Josu Lopez-Gazpioek** labur azalduko dituzten gaien inguruan.

Eguneroko kimikako apunteak

[Ainara Sangroniz](#), EHUn Kimikan doktore eta Polimero eta Material Aurreratuen Saileko irakasleak, naturan aurki daitekeen nahasketa kimiko konplexuenetako bat argituko du: sugeen pozoia. Nahaste duala da: hilgarria izan daiteke, baina odol-presioa eta koagulazioa tratatzeko sendagaiak garatzeko oinarri gisa erabili daitezkeen konposatuak ere baditu.



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

50 URTE
AÑOS
somos
KIMIKA
gara

Bestalde, [Lide Arana](#) biokimikariak, EHUko Biomedikuntza eta Biologia Molekularrean doktore eta Kimika Aplikatuaren Sailean irakasle denak, gure gorputzak milioika organismoz osatutako ekosistema bizi bat bezala funtzionatzen duela azalduko du; bakterioak, birusak eta onddoak aipatuko ditu, besteak beste. Zehazki, lankide mikroskopiko horiekin dugun harremana aztertuko du, haien ekarpena funtsezkoa baita gure osasunerako.

Gainera, EHUn Kimikan doktore eta Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) irakasle den [Josu Lopez-Gazpio](#) kimikariak gai oso arrunt baten atzean dagoen kimikan jarriko du arreta: puzkerrak edo flatulentziak. Azalpenean, hauei lotutako hainbat kontzeptu zientifiko aipatuko ditu, hala nola gasen, soinuaren, usaimenaren edo hartziduraren legeak.

Bertsoak eta dibulgazio zientifikoko hitzaldiak uztartuko dituen "Jakinduriek mundue erreko dau" bertsozientzia saio hau datorren asteazkenean, **abenduaren 3an**, egingo da **Donostiako Carlos Santamaria Zentroan, 11:00etan**. Sarrera librea izango da eserlekuak bete arte.



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

50 URTE
ANOS
somos
KIMIKA
gara

NOTA DE PRENSA

Química a ritmo de bertso en Donostia

La Cátedra de Cultura Científica de la EHU y la Facultad de Química de la EHU organizan el espectáculo de bertsozientzia "Jakinduriek mundue erreko dau", evento que combina bertsolarismo y divulgación científica, en el marco del 50º aniversario de la facultad

La actividad tendrá lugar el próximo miércoles 3 de diciembre, Día Internacional del Euskera, en el centro Carlos Santamaría de Donostia-San Sebastián

Amets Arzallus y Oihana Arana pondrán voz y rima a cuestiones científicas planteadas por Ainara Sangroniz, Lide Arana y Josu Lopez-Gazpio, en un evento presentado por el sociolingüista y humorista Kike Amonarriz

Donostia-San Sebastián, 26 de noviembre de 2025. [La Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#) y la [Facultad de Química de la EHU](#) han organizado una sesión del espectáculo de bertsozientzia "Jakinduriek mundue erreko dau" centrada en la divulgación del conocimiento químico a ritmo de bertso con motivo de la celebración del 50º aniversario de la facultad. La cita tendrá lugar el **próximo miércoles 3 de diciembre**, Día Internacional del Euskera, a las **11:00 horas en el centro Carlos Santamaría de Donostia-San Sebastián**.

Presentado por el sociolingüista y humorista **Kike Amonarriz**, el espectáculo contará con la participación de los bertsolaris **Amets Arzallus** y **Oihana Arana**, quienes improvisarán sobre los temas expuestos de manera breve por **Ainara Sangroniz**, **Lide Arana** y **Josu Lopez-Gazpio**.

Apuntes de química cotidiana

La química [Ainara Sangroniz](#), doctora en Química por la EHU y profesora del Departamento de Polímeros y Materiales Avanzados, subirá al escenario para desvelar una de las mezclas químicas más complejas que se pueden encontrar en la naturaleza: el veneno de las serpientes. Una mezcla de carácter dual ya que, aunque puede ser mortal, contiene compuestos que se han utilizado



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

50 URTE
AÑOS
somos
KIMIKA
gara

como base para el desarrollo de fármacos destinados a tratar la presión sanguínea y la coagulación.

Por su parte, la bioquímica [Lide Arana](#), doctora en Biomedicina y Biología Molecular por la EHU y profesora del Departamento de Química Aplicada, explicará cómo nuestro cuerpo funciona como un ecosistema vivo en el que conviven millones de microorganismos, como bacterias, virus y hongos, entre otros. En concreto, analizará la relación que mantenemos con estos compañeros microscópicos, cuya contribución resulta fundamental para nuestra salud.

Además, el químico [Josu Lopez-Gazpio](#), doctor en Química por la EHU y profesor de la Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), pondrá el foco en la química que se esconde detrás de un tema de lo más cotidiano: los pedos o flatulencias. Durante su exposición, abordará algunos conceptos científicos asociados, como las leyes de los gases, sonido, olfato o la fermentación.

Esta sesión de bertsozientzia “Jakinduriek mundue erreko dau”, que combinará bertsos y charlas de divulgación científica centradas en la química, se celebrará el próximo **miércoles 3 de diciembre a las 11:00 horas** en el **Centro Carlos Santamaría de Donostia-San Sebastián**. La entrada será libre hasta completar aforo.